# ttipi-ttapa

**280.** zenbakia • 2000ko ekainak 15 • **XX.** urtea


☞ **ARPANA** *Mendiko langileendako formakuntza eskola*

# Mendimutil guti dago behar bezala formatua

Arpanakoek batez ere alderdi praktikoa lantzen dute 100 orduko ikastaroetan. Irakasleak mendiko lanetan esperientzia haundiko profesionalak dira, eta ikasgaiak 5 multzotan banatuak dituzte: makina eta tresnen erabilera, segurtasuna eta garbitasuna, oihangintza, ekologia eta inguramena, eta azkenik, lanaren antolakuntza. Taldeak hagitz ttikiak izaten direnez, 4-8 lagunekoak, eta modu horretara ikasle bakoitzaren segimendu berezia egiten ahal da, batez ere makina haundiak erabiltzen erakusten denean. ☞ 4-5

**Lanaren kalitatea eta produktibitatea murritzagoa da eta istripu arrisku haundiagoa formakuntzarik ez duten langileen artean**





## Arkupeak elkartearen besta

### Ekainaren 27an Donezteben

Urtero bezala, aurten 85 urte bete dituzten adinekoak eta ezkonduta 50 urte egin dituzten senar-emazteak omenduko dituzte besta honetan. Bidenabar, elkartearen hamalaugarren urteurrena ere ospatuko dute. ☞ 8

**3** **Elkarrizketa:**

### "Baztango liburutegian tokia falta dugu"

Arrenkura hori azpimarratu nahi du Sonia Lopez liburuzainak. Gaur egun 25 lagunentzat tokia dago bakarrik, eta banaz bertze, 60 bat lagun sartzen da egunero.

**GEHIGARRIA:**

### Euskararen egoera Baztan, Malerreka eta Bortzirietan

Urte hasieran SIADECO enpresak inkesta bat egin zuen euskararen inguruan hemengo jendeak duen jarrera aztertzeko. Hiru eskualdeetako Euskara Zerbitzuek prestatu eta TTIPI-TTAPAren ale honekin batera banatu den argitalpenean dituzu inkesta horren emaitzak.

**TTIPI TXARTELA**: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



## DESKONTUAK

**ARGAZKIAK**

**AYLA**
BERA
Tfnoa.: 948 63 00 75
- **%10 merkeago argazki makinetan izan ezik**

**FOTO GOIKO**
BERA
Tfnoa.: 948 63 05 15
- **%10 merkeago karreteetan, errebelatzeetan...**

**ARROPAK**

**Kamamila**
ARROPADENDA
DONEZTEBE
Merkatu karrika, 2
Tfnoa.: 948 451 528
- **%10 merkeago** arropetan

**MARELI**
Jantzidenda
Sasoiko jauntziak
Neurri haundikoak
*Loreak Mendian*
ELIZONDO
Jaime Urrutia, 27
- **% 5 merkeago** Arropa guzietan

**KIROLAK**

**Agara SPORT KIROLAK**
*EHIZA, ARRANTZA ETA KIROLA*
BERA • Altzate, 22
Tfnoa.: 948 630 999
- **%10 merkeago** kirol artikuluetan

**55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN**




# TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.
Deskontuak, zozketak, opariak…

ESKATU ZUREA
☎ **948 63 11 88**

Aitzineko alean zozketatu genituen 5 solarium saioen irabazlea:
**Juncal SUSAÑO VALLE**
(ORONOZ)

HAMABORTZALDI HONETAKO SARIA:

## 2 afari edo bazkari
**TTIPI TXARTELA dutenendako**

"AITOR"
RESTAURANTE ASADOR
Maria Juncal Labandibar, 7 • Behobia • 943 62 44 77

**2 lagunendako bazkari edo afaria**
zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean.
Zozketan parte hartzeko, deitu ekainaren 22a baino lehen 948 63 11 88ra.

## DESKONTUAK

**TAILERRAK**

**SANSIÑENA GARAJEA**
ZERBITZU OFIZIALA
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 04 06
- **%15eko deskontua olio aldaketetan**

**KATEA-BIKE**
BERA
Tfnoa.: 948 63 12 18
- **%5eko deskontuak konponketetan.**

**OPTIKAK**

**Ortargi Optika**
BERA
Bidasoa, 8
Tfnoa.: 948 63 07 53
- **%10 merkeago**

**ZAPATADENDAK**

**Nerea** Oinetakoak
OINETAKOEN MODA
DONEZTEBE
San Miguel, 2
Tfnoa.: 948 45 03 82
- **%10 merkeago**

DATUAK

- *Soniak 22 urte daramatza dagoeneko postu horretan, eta beraz, aski ongi ezagutzen ditu liburutegiko erabiltzaileak eta hauen beharrak zein diren.*
- *Gaur egun toki falta larria dute Baztango liburutegian, 25 lagunendako tokia izanik egunero 60 bat lagun sartzen baitira.*
- *Gainera, apalak ere betebeterik daude. Urtero 800 liburu berri inguru sartzen badira bertze hainbertze kendu behar dira halabeharrez.*
- *1.500 kide baino gehiago ditu Baztango liburutegiak, eta gehien erabiltzen dutenak 10-18 urteko ikasleak dira. Uda partean turistak ere franko sartzen omen dira.*

TESTUA ETA ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

**Sonia LOPEZ IGARTUA** *Baztango liburutegiko langilea*

# "Liburutegia herrietara hurbiltzeko *bibliobus*a jartzea ongi legoke"

**ASPALDITIK DUZUE TOKI ESKASIA BAZTANGO LIBURUTEGIAN, EZTA?**

Bai. Orain eguraldi onarekin jende gutiago etortzen da, bainan neguan 60-70 lagun etortzen dira egun batean eta 25entzat bakarrik dago tokia. Liburutegiaren estrukturak berak hortara behartzen du, arras zaharra baita etxe hau, eta akordio baten arabera ezin da aldaketarik egin estruktura aldetik. 1972. urtean ireki zen Baztango liburutegia, eta 1986tik gaude hemen. Aitzinekoan hezetasun arazoak zeuden, ados, bainan hemen toki falta handia da.

Liburutegiak handiagoa beharko luke, 500 m² inguru, liburu eta bideo-apalak, ikasteko gela bat…

Urtero 800 liburu berri baldin baditugu, eta tokia berdina baldin bada, arazo matematiko bat dugu hemen. Beraz, urtero 800 liburu sartzen badira bertze 800 kendu egin behar dira.

**TOKI ESKASIAREN ARAZOA MOLDATZEKO ESKARIA EGINA IZANEN DA, EZTA?**

Bai, Udala da toki berria prestatu behar duena. Eskaera hori ikertzen ari dira. Baztango alkateak hauteskunde kanpainan aipatzen zuenez, bere lehentasunen artean liburutegia handitzea zegoen.

Gero tresneri informatikoa sartzea ere beharrezkoa da. Nik gero eta gehiago somatzen dut behar hori. Ez du zentzurik, liburutegiak informazioa kudeatzeko tokia baldin badira. Bainan Baztanen lokal berria eduki arte ez da ja eginen alde horretatik.



«Tresneri informatikoa sartzea ere beharrezkoa da» dio Soniak.

**TOKIREN BAT PENTSATU DUTE LIBURUTEGI BERRIA KOKATZEKO?**

Badakit elkarrizketa batzuk izan direla bainan ez dakit zer proposatu duten. Ez dago arazorik, jende guzia ados dago, bainan ez dago erabakirik oraindik. Nik Arizkunenean bertan jarriko nuke, herriko erdigunean dagoelako. Gainera ondoan bertze gela batzuk daude, dantza-gela, pintura-gela… orduan liburutegia eskura dute denek. Harremanetarako, kulturarako eta asti-librerako tokia izan beharko luke liburutegiak.

**BAZTANEN ARAZO TTIKI BAT IZANEN DA KANPOKO HERRIETAKO JENDEAREKIN, EZTA?**

Bai, herrietakoekin eskuzabalagoa naiz Elizondokoekin baino (ondoan bizi direnak dira makurrenak), liburuak ahal dutenean ekartzea eskatzen diet soilik.

Liburutegia herrietara hurbiltzeko proposamen bat bibliobus ttiki bat jartzea izanen litzateke. Ideia arras ona iduritzen zait, Espinalen egiten dute dagoeneko. Nik jubilatu baino lehenago ikusi nahi nuke ideia hau martxan *(irri egiten du)*.

*"1972. urtean ireki zen Baztango liburutegia, eta 1986tik gaude hemen. Aitzinekoan hezetasun arazoak zeuden, bainan hemen toki falta handia dago."*



ARPANA

# Mendimutil profesionalen eskola

**Orain eta hemen ez da erraza mendi lanerako ongi prestatutako langileak harrapatzea, eta horrek istripuak gertatzeko arriskua handitzeaz gain, produktibitatea eta lanaren kalitatea nabarmen murrizten ditu. Egoeraren larritasunaz jabeturik hasi zen Arpana eskola mendimutilak profesionalizatu nahian. Juanjo Camino eta Luis Altxu dira Arpanako arduradunetako bi, eta beraiek azaldu digutenez, ikastaroen zati handiena mendian egiten dute, normalki mendimutilak aritzen diren baldintza berdintsuetan.**

TESTUA: ASIER GOGORTZA

Mendian ari diren langile desberdinei formazioa ematea da Arpanaren xede nagusia: motozerralariak, traktore gidariak, autokargadore gidariak… Izan ere, gaur egun mendian ari diren langileetako aunitzek prestakuntza gutti omen dute, Arpana eskolako arduradun diren Luis Altxu eta Juanjo Caminok adierazi dutenez: *«arbol mozketa txar aunitz ikusi dugu basoetan, ipurdietako ebakien arrastoak hala erakusten dute. Horrek erakusten du zenbateraino ezezagunak diren zuhaitzak mozteko teknika zuzenak. Langileak ere gaizki hornituak joan ohi dira eta aunitzek ez dakite erremintak egoera onean mantentzen, ezta lan arriskuak saihesten ere. Aunitz hobetu beharra dago mendiko lanean istripuak, ingurugiroaren kalteak eta diru galerak saihestu nahi baldin baditugu».*

Luis Altxu oronoztarra kapataza da gaur egun, eta 10 urteko esperientzia du mendian.

# IKASTAROAK



### Motozerralari profesionala

Motozerraren erabilera seguruan motozerralariak eta kuadrilak trebatzea da helburua; erreminten zainketa eta mantenimendua; ekologia eta oihangintzan oinarrizko formakuntza; segurtasuna eta garbitasuna lanean; lanaren antolaketa.

### Motozerralari espezializatua



Motozerralari adituak prestatzen ditu ikastaro honek, balio handikoak diren, edo mozketa eta ateratze zaila duten arbolak mozteko. Ikastaro hau egiteko lehendik motozerra erabiltzen jakin behar da. Prestakuntzaren barrenean mozketa teknika aurreratuenak eta ingurugiroa errespetatzen duen lana egiten erakusten da.

### Oihangintzako traktore gidaria



Skidder-a eta Bulldozer-a ongi erabiltzen erakusten da ikastaro honetan, egoera zailenetan ere ingurugiroa errespetatuz lan egiteko moduan.



### Autokargadore gidaria



Autokargadorea eta grua maneiatzen errendimendu handia lortzeko gai diren langileak prestatzeko. Formakuntza berezia izanen dute egur aukeraketan.



### Bertze ikastaroak



- Mandozaina
- Oihangintza lanetako taldeen formakuntza
- Oihangintza lanetarako sarrera
- Seinalamendua (teknikak eta salmenta loteen prestakuntza)

**KONTAKTUAK: Tel. 948 196 453 / Fax. 948 196 351**

Luzaideko Juanjo Caminok, berriz, 70. hamarkadaren hasmentan hartu zuen lehen aldiz motozerra, eta geroztik mendiko langileak prestatzen lan egin du hainbat urtez. Orain arte enpresek edo instituzioek egindako eskaeren arabera ematen zituzten ikastaroak. Lan taldearen ezaugarriak eta akatsak ikusi ondotik ikastaroa neurrira prestatzen zuten, hori bai, ikastaroaren zatirik handiena, %80a inguru, mendian izaten da, eguneroko lanaren ahalik eta egoera antzekoenean. *«Irakasle eta monitore guziek esperientzia praktiko handia dutelako soilik lortzen ahal da hau»* diote, *«horrela bakarrik bermatuko da egurra goxotasunez zaindua izatea, arbolari motozerra sartzen zaionetik zurgindegira edo fabrikara ailegatzen den arte»*. Orain, berriz, zuzenean beraiek egiten dute ikastaroen eskaintza, mendiko lana gustoko duen guziari begira.

### Ikastaroen ezaugarriak

Arpana elkartea Basartea elkartearen baitatik sortzen da, mendimutilen formakuntzan lan egiteko helburuarekin. Erran dugun bezala, batez ere alderdi praktikoa lantzen dute ikastaroetan parte hartzen dutenek, bai zentruan bai mendian bertan ere. Irakasleak mendiko lanean esperientzia handiko pertsonak dira orokorrean, eta ikastaro hauek emateko prestakuntza pedagogikoa hartu dutenak.

Bortz ataletan banatzen dira ikastaroak: makineriaren erabilera, segurtasuna eta garbitasuna, oihangintza, ekologia eta ingurugiroa, eta azkenik, lanaren antolakuntza.

Lan taldeak, berriz, hagitz ttikiak dira, 4tik 8 lagunera, horrela bakoitzaren segimendu berezia egiten ahal da, batez ere makineria astunaren erabilerari dagokionean. Makina hauekin egiten diren praktika ugariek prestakuntza egokia bermatzen dute lan munduari begira.

**Luis ALTXU** *Oronoz*

# «Jendeak uste du motozerrarekin lan egiteko motozerra edukitzea aski dela»



**Zer dela eta sortzen da Arpana eskola?**

Arpana enpresa pribatu bat da. Ikusi dugu mendi lanen inguruan eskolak ez duela beharrezko formakuntza ematen, eta orduan pentsatu dugu interesgarria izaten ahal dela mendietako langileak prestatzea beuren lana hobekiago egiteko.

**Horrelako eskola gehiago badago hemen?**

Ez, ez, hau da lehendabizikoa, bertze eskoletan oihangintzari buruzko gauza orokorrak ematen dituzte, bainan praktikarik batere ez.

**Mendiko lan bakoitzerako prestakuntza berezia ematen duzue.**

Bai. Hemen jendeak uste du motozerrarekin lan egiteko motozerra edukitzea aski dela. Europako bertze herri aurreratuagoak ikusten baditugu eurek badituzte formakuntzarako programa osoak eta handiak. Haien esperientzia hartu eta hemengo lekuetara egokitu. Enpresek gero eta gehiago jende prestatua eskatzen dute. Arazo handiak daude jendea harrapatzeko, eta gehienak prestakuntzarik gabeko langileak dira.

**Nola egiten dituzue praktikak?**

Guk 100 bat orduko ikastaroa ematen dugu 15 egunetan, eta gero 6 hilabeteko lan-kontratua egiten diegu. Denbora horretan segimendu bat egiten diegu lan errealean, akatsak zuzentzeko.

**Mendi zati batzuk erabiltzeko hitzarmenen bat izanen duzue orduan...**

Badira egurketari batzuk gurekin ados daudenak, eta beti eurekin egiten dugu kontratua, prezio batekin erosten ditugu mendiak bertze lanetarako bezal-bezala.

**Zer egin behar du jendeak zuen ikastaroetan izen emateko?**

Eskatzen dugun bakarra mendia gustatzea eta lanerako gogoa izatea. 10-12 laguneko kuadrila bilduz gero nahikoa da taldea osatzeko. Hortik aurrera gurekin kontaktuan jarri eta emanen ditugu hurrengo pausuak.

GAURKOTASUNEKO GAIA

# Erretzaile kopurua murrizteko legea onartu nahi du Nafarroako Gobernuak

## Nikotinak sortzen du menpekotasuna, beraz partxeak baliagarriak dira



Mario ARTIEDA
Leitzako Osasun Zentroa

Nafarroako Gobernuak esku artean duen legeak gauza positiboak ekar ditzazke. Lehenbiziko helburua erretzaileen kopurua %32tik %26ra jaustea da. Horretarako zenbait neurri aurrikusi ditu. Erretzeari utzi nahi diotenek 20.000 pezeta jasoko dute nikotina-partxetan. Hau da, tratamenduaren hirutik bi ordainduko zaie, orain arte hirutik bat ordaintzen zen bitartean. Partxe hauek baliagarriak dira erretzeko bizioa uzteko, izan ere nikotina baita menpekotasuna sortzen duena. Tabakoa saltzeko debekua hamasei urtetik hemezortzira pasatuko da. Adin hori da kritikoena, baina aitzinetik ere hasten dira neska-mutiko nerabeak erretzen. Adin horietan ezartzen da bakoitzaren nortasuna eta garrantzitsua da erretzeko beharra ez somatzea. Osasun arloko langilea naizen aldetik, oso egokiak iruditzen zaizkit neurri hauek. Kontuan hartu behar da, estatistiken arabera 600 hildako eragiten dituela urtero tabakoak Nafarroan. Gainera, bertze eritasunek ere okerrera egiten dute tabakoaren ondorioz. Erretzea libre da, baina erretzen ez dutenen eskubideak ere defendatu behar dira.

## Erretzaile eta ez erretzaileendako guneak sortu behar dira



Jon ABRIL
Ez erretzailea. Bera

Eremu publikoetan erretzea arautzeko neurriak iragarri ditu Nafarroako Gobernuak. Horrek eragin zuzena izanen du nire lantokian, Berako Kultur Etxean. Erretzea debekatua dagoela iragartzen duten oharrei ez die inork erreparatzen–edo ez diote erreparatu nahi izaten-, eta guti batzuek baino ez dute galdetzen erretzerik badagoen. Jende pilaketarekin, eta batez ere musika emanaldietan, arazoa handitu egiten da. Orduan, «segurtasunagatik», «bertzeenganako jarreragatik» edo gisako arrazoiengatik ez erretzeko eskatu arren, jendeak ez du kasurik egiten. Ez dut inolako jarrera txarrik erretzaileekiko, baina leku itxietan, eta batez ere eremu publikoetan eskertzekoa da kerik gabeko guneak sortzea. Osasunari dagozkion abantailetatik haratago jo behar da. Ez da kapritxo bat kultur etxean ez erretzeko eskatzea. Bi aldiz hartu dute su paperontziek urtebetean gaizki itzalitako zigarrokinengatik, eta zigarroak itzaltzeko eskariak antzuak izaten dira, behin eta berriz. Erretzaileentzako guneak bezala, ez erretzaileentzako guneak ere beharrezkoak dira, eta norberak hauta dezala non egon nahi duen.

## Erretzen ez dutenei egiten ahal diegun kalteaz konsziente izan behar dugu



Txema ALDABE
Erretzailea. Doneztebe

Edozein debeku edo kanpaina baino garrantzitsuagoa iruditzen zait erretzaileok konsziente izatea bertzeei egiten ahal diegun kalteaz. Guk guretzat nahi dugun guzia egiten ahal dugu, azken finean gure gorputza da, baina bertze norbait baldin badago tartean errespetu pixko bat zor diogu. Ni saiatzen naiz leku itxietan ez erretzen, zigarroa piztkeko kanpora ateratzen... Nafarroako Gobernuak egin nahi duen legeak, berriz, erdizka asmatzen duela uste dut. Bizioa utzi nahi dutenentzat laguntza izatea ongi dago. Orain, debekua hamasei hemezortzi urtera igotzea kalterako izanen dela uste dut. Adin horretan debekatua dagoena nahi duzu eta tabakoa zer den ezagutzeko irrika handiagoa izanen dute galerazia egonez gero. Leku bereziak izatea ere ez dut ongi ikusten. Ostatuetan eta, lan handia emanen du horrek. Tabakoa kalte egiten duela nabarmena da eta urrutira joan gabe, hemen inguruan bi lagun gazterik hil dira tabakoaren eraginez. Batzuk erraten dute denok hil behar dugula, etabar... baina hurbilean suertatzen zaizunean hunkitu egiten zaitu eta zer pentsatua ematen dizu.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tlnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
**Internet:**
http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... **Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**
Hego Euskal Herria ........ 2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria ........ 160 Libera
Europa ........ 4.000 Pta.
Amerika ........ 16.000 Pta.

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tlnoa: 948 637050

**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328-133346. Faxa: 948133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Naforkaria (Egunkaria) 00ko ekainak 2

*«Gu joaten ginen sarats larreak bilatzera –Maiatzeko Erreginen bestarako– koroak egiteko eta ondotik bertan loreak jartzen genituen».*

**Rosario KARRIKABURU**
Arraiozkoa
Naforkaria
00-06-02

*«Joku aldetik ongi nago, konfidantzarekin nago pilota gozatzen dudala eta kolpea dudala ikusten baitut. Hori dena garrantzitsua da».*

**Mikel GOÑI**
Oronozko pilotaria
Diario de Navarra
00-06-07

## 11 GALDERA LABUR



**Iñaki SANZBERRO**
Baztango Mendigoizaleak taldeko lehendakaria
ELIZONDO

- **Ezagututako mendirik ederrena?**
- Balaitous, Pirinioetan.
- **Norekin pasatuko zenuke asteburu bat Balaitousen?**
- Mendiko edozein lagunekin.
- **Mendia: kirola egiteko, fisikoa zaintzeko edo inguruneaz gozatzeko?**
- Gozatzeko, bestaz aparte zerbait egiteko.
- **Udan ez duzue ateraldirik antolatzen?**
- Lagun artekoak bakarrik, «ofizialik» ez.
- **Herrietako bestak hasiak dira...**
- Ba... aprobetxatuko ditugu.
- **Baztandarren Biltzarraren antolakuntza ere ibiltzen zara?**
- Beharko!! Laneko prest jende guti baitago.
- **Aurten ere herri guzietako karrozak ikusiko ditugu?**
- Joan den urtekoa ikusita, segur baietz.
- **Baztandarra izaki, ttuku-ttukua al zara?**
- Pixket bai, bertzenaz ez nintzen baztandarra izanen.
- **22 urterekin lehendakaria...**
- Pentsa noraino ailegatuko naizen!!!
- **Amets bat?**
- Peruko Andeak ezagutu.
- **Eta ametsgaiztoa?**
- Ortotzik ibiltzea karrikan barna.


ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.
✆ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 28 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Botxo
OSTATUA
✆ 948630052 • Zalain • BERA

SALAZONES UDANA, S. L.
Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23.pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

INTERVIDEO
Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak
Tel: 948.599.055

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

ADINEKOAK

# 85 urte eta Urrezko Eztaiak bete dutenak omenduko ditu Arkupeak elkarteak

## Ekainaren 27an izanen da urteko besta eta bazkaria Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan

TTIPI-TTAPA

Aurten 85 urte bete dituzten adinekoak eta ezkonduta 50 urte egin dituzten senar-emazteak omenduko ditu Arkupeak elkarteak ekainaren 27an Donezteben. Modu berean, elkartearen hamalaugarren urteurrena ere ospatuko da.

Egitarauan ez da aldaketa handirik izanen. Goizeko 11,30etan Meza izanen da, bertsolari eta txistulariek alaitua. Ondoren, bazkaria izanen dute Bordatxo dantzalekuan. Sarrerakoak, langostinoak, legatza, umerria, tarta, izozkia, txanpaina, kafea eta kopa izanen dute Argetasko Moderno jatetxeak eskainitako menuan. Bazkal ondotik dantzaldia izanen da Amalur taldearekin. Nafarroako Kutxaren laguntza izan du Arkupeak elkarteak besta egun hau prestatzeko.



**Ekainaren 27ko omenaldi egunean Bordatxoko bidea hartuko dute bertze urte batez Arkupeak elkarteko kideek.** Artxibokoa

Omenaldi horren aitzinetik, ekainaren 19tik 23ra Aragoira bidaia antolatu du Arkupeak elkarteak. Lehenbiziko egunean Zaragozako Pilarika bisitatuko dute eta bazkal ondotik, Harrizko Monastegi inguruak ikusiko dituzte. Biharamonean sartuko dira monastegi zoragarrian. Hortikan Soriako Vinuesa aldera joanen dira eta bertan pasatuko dituzte hurrengo bi egunak, Laguna Negra, Lobos errekako kainoia, San Saturninoko baseliza, Numancia, Burgo de Osma eta Catalañazor bisitatuko dituzte. Bidairaren prezioa 32.000 pezetakoa da elkarteko bazkideentzat.

ERREPIDEAK

# Belateko tunelak aztertzen hasi dira berriro

## Arazoen arduradunak bilatu nahi ditu Nafarroako Gobernuak

Ekainaren 5eko gauean hasi ziren Almandozko tunela aztertzen. Azterketa honen emaitza hemendik sei hilabetera jakinen da eta Nafarroako Gobernuak azpiegitura honek sortzen dituen arazoak moldatzeaz gain, arduradunak bilatzea da. Lehenik Almandozko tunela begiratuko da, gero Belatekoa eta tresnak inguru honetan daudela aprobetxatuz, Sunbillakoa ere aztertuko da. Azterketak gauez eginen dira gehien bat eta karril bakarra zabalik utziko dute honelakoetan.

Lan hauek egiteaz gain, Belateko lanen espediente osoa aztertuko du Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamenduak, irregulartasunen bila. Honen berri eman zuen Jose Ignacio Palacios kontseilariak Palamentuaren aitzinean, *«lurrak uste baino gehiago bultzatzen duela eta estaldurak uste baino guttiago eusten diola»* onartu ondotik.

### ENDARLATSA-BEHOBIA ERREPIDEA

Bertzalde, Jose Ignacio Palacios berak Endarlatsa eta Behobia arteko sei kilometroetan hiru karrileko bide azkarra egiteko nahia erakutsi zuen. Azkeneko 700 metroetan laugarren karrila ere egitea nahiko luke. Horretarako, Gipuzkoako Diputazioari lanen erdia ordaintzea eskatuko dio. Gipuzkoarrek, ordea, ez dute honenbertzeko lanik egin nahi. Lautik bat ordaintzeko prest daude, baina errepidearen jabe izatearen truke. Lesaka-Bera eta Bera-Endarlatsa errepide zatietaz ere aritu zen kontseilaria. Bigarren zati honek ez omen du zentzurik, Behobia artekoa egiten ez bada.




✆ 948631076 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA



Altzate, 16 • 948630786 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735


SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

## BERA

# Aurten arrantza lehiaketa eginen da Altzateko besten barrenean

Ekainaren 16tik 18ra izanen dira bestak

ASIER GOGORTZA

Ortziralean hastekoak diren Altzateko bestetan berrikuntza nabarmenena igandeko arrantza lehiaketa da, urte mordoxka baitira ez zela egiten. Berako Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatu du aurten, eta arauek diotenez zizarearekin ariko dira 14 urte arteko gazteak bi kategoriatan banatuak. Goizeko 9etan irekiko da izena emateko epea, hor emanen zaizkie dortsal eta amuak, eta ordu bat beranduago hasiko da leihaketa. Zia errekan ariko dira arrantzan, eta amuarrain gehiago nork ateri harek eramanen du lehendabiziko saria.

Gainerakoan, urtero izaten diren ospakizunak errepikatuko dira asteburuan, musika, dantzak, bertsoak...

### Igeriketa ikastaroak

Uztaila eta abuztuan igerian ikasi edo estiloa hobetu nahi duenak orain eman beharko du izena. Hilabetekoak izanen dira klaseak, eta apuntatzeko 4.500 (haurrek) eta 5.000 pezeta (helduek) ordaindu behar da kiroldegian. Haurrek txapelketetan eta water-polo taldean parte hartzeko aukera izanen dute gainera.



### Gure Txokoako neskak eta areto futbolekoak kategoriaz goituko dira

Osasunaren balentriaz gain, Berako futbolzaleek badute konten egoteko bertze arrazoi pare bat bederen. Izan ere, Gure Txokoako bi talde hauek mailaz goitzea lortu zuten ekainaren lehenbiziko asteburuan. Neskek Gipuzkoako Emakumeen ligako finala jokatu zuten Mutrikuren kontra, eta partidua bana akautu bazuten ere, penaltietan finago ibili ziren beratarrak. Marisol atezainak erru handia izan zuen garaipen honetan.

Bertzalde, futbito taldeak denboraldi bikaina egin du, eta heldu den urtean liga-autonomikoan jokatuko du. Ekainaren 2an jokatutako partiduan irabazi zuten igoera postua, eta ez nolanahi gainera. Aitzineko asteburuan jokatzekoa zen partidu hori, bainan kontrarioak ez ziren tenorez agertu eta partidua irabazia eman zioten Gure Txokoari. Gero, ordea, Intxaurrondoko taldeak errekurtsoa jarri eta Konpetizio komiteak partidua jokatu behar zela erabaki zuen.



Partidua beroa eta emozioz betea izan zen hasieratik, beratarrek garaipena beharrezkoa baitzuten. Galtzen hasi ondotik, berdinketa eta garaipeneko golak Jabi Javalerak sartu zituen, istilu dexente sortu zituen falta jaurtiketa batean. Ikusleen bulkaldia erabakiorra izan zen azkenean.





### Bi beratarrak ongi ibili ziren Nafarroako Itzulian

Patxi Vila eta Jon Bruk lan polita egin dute lasterketa honetan. Vilak 3. egin zuen Ibardinen, eta mendiko sailkapenean lehen tokian akautu du itzulia. Bruk ere, lehen aldia izateko, etapa hagitz onak egin ditu, nahiz eta bere taldekideentzat lan egitea egokitu zaion. Ibardingo etapan lan handia egin zuen Banesto taldearentzat.

## flash

**Mugaz gain**

Eskolarteko antzerki jardunaldiak joan diren egunetan burutu dira Kultur Etxean. Aurten, berrikuntza gisa, antzezlan batzuk publiko guziari eskainiko dizkiote ekainaren 16an, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Berako haur eta gazteek antzerkian egin duten lana ikusgai egonen da, beraz.

**Kartel lehiaketa**

Bestetako programaren portada lehiaketa bidez aukeratuko da aurten. Nahi duen guziak ekainaren 16a bitarte izanen du epea argazki edo kartela Herriko Etxean aurkezteko. Irabazleari 20.000 pezetako saria emanen dio Besta Batzordeak.

**800.000 ptako isuna 14 haritz mozteagatik**

Beratar bati zigor hori jarri dio Ingurugiro Departamentuak, arau-urratze larritzat hartzen baita haritzak baimenik gabe moztea.

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Iriarte-Echandi, S.L.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 - BERA

# LESAKA




**Teleskolaren emanaldi berria egin dute Irain eskolan**
Ekainaren 7an, Teleskola emanaldia egin zuten laugarren urtez Irain eskolan. Ikasle eta irakasleek prestatutako telebista saioa ikusteko modua izan zuten. Aurkezle lanak Raquel, Izaro eta Naikarik egin zituzten. Errealizazio kontuak 5. mailakoak egin bazituzten ere, ikasle guziek hartu dute parte.

# Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenak omenduko dituzte ekainaren 16an

## Nafarroako Kutxaren urteroko Anaitasun Bestaren barnean

AITOR AROTZENA

Nafarroako Kutxaren Urrezko Adina elkarteko bazkideen anaitasun besta ospatuko da ortziral honetan, ekainak 16. Urtero bezala, aurten ere 50 urte esposatuak bete dituzten senar-emazteak omentzeko aprobetxatuko da eguna. Aurten sei dira omenaldia jasoko duten bikoteak: Marcelino Goia Tapia eta Josefa Goia Lastra; Manuel Lasa Olarra eta Maria Etxarte Abanz; Agustin Maritxalar Apeztegia eta Florentina Iturbide Ordoki; Jose Moreno Ruiz eta Gregoria Aguilar Soria; Atanasio Ramos Rueda eta Carolina Santos Garcia eta Antonio Maia Bergara eta Mª Josefa Larretxea Taberna.

Urtero bezala, Santiago Irigoienek zuzendutako adineko txistulari bandak eguerdian herrian barna eginen duen ibilaldiarekin hasiko da egitaraua. 12,30etan ongietorria eskainiko zaie agintari eta gonbidatuei erretiratuen elkartean, handikan Meza Nagusira joateko. Meza girotzeko, Guillermo eta Larrane kantuan, Txoperena organua joz eta Santiago eta Rekondo txistua jotzen ariko dira. Hauekon batera, Luis Olaetxea «Makuko» bertsolariak ere parte hartuko du. Gero, udal pilotalekuan anaitasun bazkaria eginen da eta bazkalondoan omenaldia eta oroigarriak eskainiko zaizkie Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenei. Besta akautzeko, dantzaldia izanen da Europa taldearekin eta bi telebista zozketatuko dira azaldutakoen artean.

### Mario Lopez garaile Herri Lasterketan

Altsasuko Mario Lopez Uraldek irabazi zuen maiatzaren 28an Batzoki elkarteak zortzigarren urtez antolatutako Herri Lasterketa, zortzi kilometroak 24 minutu eta 20 segundutan egin ondotik. Aingeru Mindegia leitzarra izan zen bigarren eta Iruritako Angel Garate hirugarren.

Emakumeek sei kilometro egin behar zituzten eta Alicia Olazabal irundarra aisa nagusitu zen, 21 minutu eta 53 segunduko denborarekin. Idoia Maritxalar lesakarra azkarrena izan zen kadetetan.

Guzira 600 korrikalari inguru atera ziren, kategoria ezberdinetan banatuak.

### Jone Fagoaga txapeldun

Jone Fagoaga, 16 urteko ehiztaria plater tiraketan hasi da, Skeet modalidadean (tiro bakarra botatzen ahal da). Esperientzia gutti izan arren, Nafarroako txapeldun suertatu zen maiatzaren 21ean. Maiatzeko azken asteburuan, berriz, Espainiako Kopa irabazi zuen Zaragozan.

## flash

**Egoitz Telletxea**
Hamalau urtez beheitiko bertsolariei zuzendutako Nafarroako Eskolarteko bertso txapelketan txapeldun suertatu da Egoitz Telletxea Etxepare lesakarra. Ekainaren 30ean Mungian eginen den Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketan parte hartuko du. Adin honetan lehen aldiz izanen da Nafarroako ordezkaritza Euskal Herriko txapelketan.

**Jose Luis Tainta**
Tantirumairu ikastolaren 25. urteurrena ospatuz egiten ari diren ekitaldien barnean trapozko pilotarekin pilota txapelketa jokatu da hilabeteotan. Finalak ekainaren 3an jokatu ziren ikastolako frontoi ttikian. Helduetan, Jose Luis Taintak 22 eta 14 irabazi zioen Juanjo Iratzokiri. D taldean Igor Gurrutxagak 18 eta 17 irabazi zioen Ander Olaizolari. E taldean, Jon Olaizolak 18 eta 2 irabazi zion Iñigo Altzugarraieri.

**Bertso afaria Linddurrenbordan**
Ekainaren 17an, larunbata, bertso afaria eginen da Linddurrenborda sagardotegian, Joxe Agirre eta Mañukorta bertsolariekin. Txartelak 3.800 pezetan salgai daude.

Beko Errota
Lore eta landareak
✆ 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
✆ 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

## ETXALAR

# Eguraldi tristea baina giro polita izan zen Gasna eta Artisau Ferian

### Urtean barrena herrian plantatzen diren egun politenetakoa bihurtu da



Artisau Feriako irudia. Pello Apezetxea

PELLO APEZETXEA

Zerua goibeldua eta xirimiri pizar bat tarteka botagatik, jendea urtero bezalatsu ibili zen, herriko nahiz kanpokoa, artisau lanak eta bertako produktuak ikusten eta erosten. Kanpokoenak eta herrikoenak. Eta arto-opila txistorrarekin edo gasna xerrarekin jaten. Gasna lehiaketara 16 gasna presentatu ziren, eta sari emaileen mahaian, lehenbiziko aldiz, Jabier Martiarenak hartu zuen parte, Idiazabal Jatorri izeneko lehendakariak.

Lehen saria, Elbeteko Mertxe San Bizenteri eman zioten; bigarrena Oizko Karlos Mindegiari, eta hirugarrena Etxalarko Isidro Ariztegik jaso zuen.

Etxalarkoentzako sariak Isidro Ariztegik eta Isabel Irazokik eraman zituzten. Iparraldeko bertsolari gazteek interes berexia sortu bazuten bazkarikoan, non 120 lagun bildu ziren, herriko dantzari ttikiak ere gustagarriak bilakatu ziren.

### Udalak epaitegira eraman nahi du Korreoseko afera

Posta zerbitzuak martxoaren 1etik murriztua segitzen du, baserrietara kartak eraman gabe eta herrian ordu guttiago eginez. Baina, gainera, eta hau aski gogorra da, ez dute solasik egin nahi izan ere Udalarekin, nahiz eta honek behin eta berriz galdetu. Udalak, hala ere, ez du etsi, gauza herriarentzako inportantea delako. Zer eginen eta, epaitegira jotzea pentsatu du, eta horretarako informazioa eskatu du hainbat toki eta erakunde edo instituziotara.

### Indarkeriaren aurkako akordioa

Indarkeriaren gaitzespena adierazi du Udalak, aho batez, helburu politikotarako egiten den indarkeria guzia: hilketak, kale borroka, hautetsi demokratikoen aurkako erasoak, Estaduaren biolentzia, presoen eskubideen zapalkuntza. Eta hori arrazoi etikoarengatik, giza eskubideen kontra doazen ekintzek justifikaziorik ez dutelako.

## flash

**Euskal Nortasun Agiria (ENA)** egitera hurbildu zen jende multzo bat Gasna Feria egunean. Dena den, uintzinera ere noiznahi joaten ahal da Herriko Etxera agiri hori egitera.

**Sendotza eriaroaren 18an eginen da** Sendotza edo konfirmazioa herriko hemezortzi gaztek eginen dute igande honetan, hilaren 18an. Apezpikuaren zonaldeko Bikarioa etorriko da.

**Landagain eskolako haurren kanpaldiak** Ikasturte akabaila hurbildu dela eta, Landagain eskolako haurrek kanpaldiak egin dituzte. Lehen eta bigarren zikloko haurrek Hondarribian egin dituzte hiru egun, maiatzaren 15etik 17ra, Bortzirietako bertze haurrekin batera, 130 bat haur denetara. Ondoko bi egunetan, berriz, maiatzaren 18-19an, Haur Hezkuntzakoak egon dira, 3, 4 eta 5 urtekoak, hauek ere bertze lau herrietakoekin.

ANA janaridenda
Bittiria, 41 · ✆ 948637518
LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948637573 · LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

TXIRULA
loredenda
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukaldeerako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

## IGANTZI

# 600 biztanletik goiti ditu berriz ere herriak

### Ugerilekua aste honetan berean irekiko da

OSKAR TXOPERENA

Azken urteotan azpitik ibili ondotik, 600 biztanleko errolda kopurua gainditu egin du berriz ere Igantzik. Gora behera haundiak izan ditu gure herriak bere bizi luzean.

XIX. mendean, erraite baterako, 800 biztanletik goiti izatera ere ailegatu omen zen. Zaila izanen da berriz ere kopuru horietara ailegatzea, baina, ez da erronka makala guttienez orain dagoen biztanle kopuruari eustea ere.

**Igerilekuko denboraldia zabaldu da**

Erran bezala, dagoeneko irekia dugu udal igerilekua. Orain hasi eta irailaren 15a bitartean irauten du denboraldiak. Igerilekura sartu ahal izateko, berriz, bi aukera izanen dira: egunean egunekoa ordaintzea, eta abonoa hartzea. Pixka bat ibiliz gero aunitzez merkeagoa ateratzen da azken hau: Uda osoko txartelak 3.500 pezeta balio du 18 urtetik goitikoentzat, 2.000 11tik 17 urtetara eta, azkenik, 1.000 4 urtetik 10tara (ttikiagoak ez dute deus ordaindu beharrik). Badakizue, nahi izanez gero, jo ezazue Herriko Etxera.




**Herriko pala txapelketan hameka bikotek eman dute izena**

Aste honetan berean hasiko den herriko Pala Txapelketan elkarrekin jokatuko dute berriz ere Iñaki Hita eta Juan Jesus Telletxeak. Iaz irabazitako txapelari eutsi nahiko diote seguruenik, baina, bertze hamar bikote izanen dira aurtengoan euren lekua hartu nahian. San Ferminetako aste ondarra kenduta, astero izanen dira partiduak, abuztuko lehendabiziko larunbatean finala jokatu bitartean. Oskar Txoperena

Pertsonaia



Xabi TELLETXEA

*Elite kategoriako Nafarroako txapeldun mendi bizikleta jautsieran*

Maiatzeko azken asteburuan burutu zen Beran Nafarroako mendi bizikleta jautsiera txapelketa. Elite kategorian, Igantziko Xabier Telletxea Etxeberria bigarrena izan zen, baina postu hori aski izan zaio Nafarroako txapelketa irabazteko, lehendabizikoa bizkaitarra. Lehendabiziko txandan 5 minutu, 52 segundu eta 06 zentesima behar izan zituen ibilbidea osatzeko eta bigarrenean ia 4 segundu guttiago.





• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia
Eztegara 19 • ✆ 948 63 02 40 • BERA

BERRIZKUN S.L.
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948 627572 • Faxa: 948 637508

Jose Canabal
elektrizista
✆ 948 637541
✆ 666 575899
IGANTZI

UDAKO IKASTARO TRINKOAK
Elena ENGLISH
• Talde ttikiak
• Ordutegi malgua
• Haur eta nagusiak
deitu lehenbailehen
948 637 584 - 608 195641

H. Lopez
iturgintza
■ Gas Instalazioak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

## ARANTZA

# Emakumeen eskulan ikastaroa afariarekin akautu zen

### Lopez Lacalle kazetariaren hilketa gaitzetsi zuen batzarrak

ELIXABET ETA GARBIÑE

Jakina denez, urte guzian Zahar-Txokon eskulan ikastaroa egin da. Azken urteotan bezala, Nafarroako Emakumeen Institututik dirulaguntza jaso dute bertako ikasleek egiten dituzten lanentzako materiala ordaintzen laguntzeko. Aurten 22 lagun zeuden ikastaro honetan apuntatuak eta bi txandatan aritu ziren asteartero, batzuk 6etatik 7etara eta bertzeak 7,30etatik 9etara. Ekainarekin batera, ikastaro honen akabaila ere ailegatu da eta akabaila ona emateko intentzioarekin astearte honetan afaria egin zuten Burlada jatetxean.

#### Lopez Lacalleren heriotzari buruzko mozioa

Ekainaren 2an egin zen udal batzarrean ETAren azkenaurreko ekintzari buruzko mozioa aurkeztu zuten EAJ taldeko zinegotziek. Bertan, Jose Luis Lopez Lacalleren heriotza gaitzetsi eta *«adierazpen askatasunaren aurkako ekintza hau»* salatu zen. Bertzalde, EHko zinegotziek bertze mozioa aurkeztu zuten, Euskal Herriko egoera politikoa behin betiko konpontzeko egin beharreko lana konponbide politikoa bilatzea dela adieraziz. Hilketa hau ere gaitzesten zuen bere idatzian EHk. Horrela, botazioaren orduan, EHko hiru zinegotzik aukera hau bozkatu zuten eta EAJko bi zinegotziek ezin izan zuten beraien mozioa aitzinera atera.

#### Kontuhartzaile eta idazkari zerrenda

Nafarroako Gobernuak, azterketa batzuen ondotik, idazkari eta kontuhartzaileekin osatutako zerrenda irekiko du aurten.

Udalak erabaki hau onartzea adostu zuen, noizbait ordezkapen bat egitea behar izatekotan, zerrenda honetaz baliatu ahal izateko. Deialdia behin bakarra eginen du Nafarroako Gobernuak eta aukera bakarra zen bertan parte hartzeko.

#### San Juan Eguna

San Juan eguna hurbiltzen ari den honetan, jakinarazi nahi genuke urtero bezala ekainaren 24an San Juan Xar eguna ospatuko dela. Eguerdiko 12etan izanen da elizkizuna eta gero, San Juan erroskilak erosteko aukera izanen da. Hurrengo lau igandetako elizkizunak San Juan Xarren izanen dira, ohiturari eutsiz.



**Konfirmazioa egin zuten herriko hameka gaztek**
Maiatzaren 28an ospatu ziren herrian sendotza edo konfirmazioak. Bi kintaldiko gazteak konfirmatu ziren eguerdian. Elizkizuna akautzerakoan Zahar-Txokon hameketakoa banatu zen. Argazkia: Ayla



J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 948631342 BERA • ✆ 948637172 LESAKA



ALBERGEA
JATETXEA
✆ 948 634179
ARANTZA





LESAKA

TOLDOS BAZTAN S.L.
TOLDOS BAZTAN
Presta zaitez udarako!
• Eguzkitik babesteko toldoak
• Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
• Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
• Errotulazioa
SALMENTA
ALOKAIRUA
KONPONKETA
☎ 948 63 10 03 • 629 01 59 23
Baldrun 8, Alkaiaga industrialdea • Lesaka • SARRERA BERAKO ZALAIN AUZOTIK

## ITUREN

# Andres Iñigo omendu zuen Euskaltzaindiak maiatzaren 27an

### Onomastikan oinarritu zuen bere sarrerako solasaldia

IBAN ISASI

Andres Iñigo Ariztegi Euskaltzaindia euskararen akademiako kide berriak bere sorterria aukeratu zuen izendapen hau jasotzerakoan eskaini behar izaten den sarrera solasaldia aurkezteko. Honela, maiatzaren 27an jendez gainezka ageri zen Iturengo plaza.

Hitzaldirako herriko etxeko ganbarako aretoa aukeratu bazen ere, ekitaldi ofizialaren aurretik Herriko udalbatzak, Jose Mari Gorosterrazu, herriko alkatea eta herriko ikurriña aintzinean zuela eta euskaltzain nahiz txistularien doinuekin lagundua, Iñigok Iturenen duen etxerako bidea hartu zuen. Han lehenbiziko ongietorria egin ondotik bera eta ondoan izan zituen senitartekoekin batera plazako bidea hartu zuten, tartean Iñigoren amaren etxean geldialdi ttiki bat eginez.

Behin plazan, aurresku batekin agurtu zuten omendua. Lehenbiziko aurkezpen hauek bukatuta bada, herriko etxeko ganbarako aretoan bildu zen jendea, ekitaldi ofizialaren lekuko izateko. Aipatu beharra dago, euskararen munduko pertsonaiez gain herritar franko hurbildu zela aretora.




Herriko Etxearen atarian aurreskua eskaini zitzaion Andres Iñigo euskaltzain berriari.

Argazkia: ttipi-ttapa TB

#### ONOMASTIKAN OINARRITUTAKO SARRERA HITZALDIA

Mahaiburuan Jean Haritxelar euskaltzainburuak, Jose Mari Gorosterrazu alkateak, Andres Urrutia euskaltzainak eta Andres Iñigo berak hartu zuten hitza. Beraiekin batera ezin ahantzi Jose Ramon Elorz Euskararen normalizazio eta sustapen zerbitzuko zuzendaria.

Onomastikan oinarritu zuen Iñigok bere sarrera hitzaldia. Euskal izenek duten garrantziaz konsziente, onomastikaren azken urteotako joerak, gai honen inguruan egin beharreko lanak eta jasotako aldaketei buruz mintzatu zen euskaltzain berria.

### Ibintza kultur taldeak antolatutako irrati saioak uztaila hasieran

Ibintza kultur taldeak, Xorroxin Irratiarekin elkarlanean, herritik bertatik eta herriko hiru auzoendako eskainiko diren irratsaio batzuk prestatu ditu. Erran bezala, Xorroxin Irratiak tresneria utziko du eta nahi duten iturendar guziek beraien saioa eskaintzeko aukera izanen dute uztailaren 1 eta 2an. Programazioan denetik izanen da eta norbaitek parte hartu nahi izanez gero, Ibintza taldekoekin harremanetan jarri behar du.

### Sorginen Laratza ETBko programara autobusa

Ekainaren 15ean, arratseko 8,15etan abiatuko da ETBko «Sorginen Laratza» programan parte hartuko duen autobusa. 35 lagunek eman dute izena.


GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Pebenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA


BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Anaztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06





APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

## MALERREKA

# Trinitate Eguna igande honetan ospatuko da Mendaurko kaxkoan

### Elgorriagako bainuetxearen proiektua sei arkitektuk eginen dute

IBAN ISASI



**Igande honetan, bertze urtetan bezalatsu, animazio ederra izanen da Mendaurreko kaxkoan.** Artxiboa

Igande honetan, ekainak 18, urteroko hitzordua izanen da Mendaurko kaxkoan, Trinitate eguna ospatuko baita. Urtero bezala, Ituren, Zubieta, Sunbilla, Arantza eta mendi ikusgarri hau inguratzen duten herrietako mendizaleak zakutoa hartu eta ttipi-ttapa kaxkora abiatuko dira.

Ohiturari eusteko, goizeko 9etan eta 10etan mezak emanen dira Mendaurko baselizan. Ondotik, urtegi inguruan bazkaldu eginen dute bertaraino hurbildu direnek. Bazkal ondotik, Arkaitz eta Ainara Aurtizko trikitilarien saioa aditzeko aukera izanen da. Arratsaldez, dantza eta kanta segitu nahi dutenek, Iturengo dantzaldira agertzea bertzerik ez dute.

#### Elgorriagako bainuetxearen proiektua

Elgorriagako bainuetxearen proiektuak sei arkitekturen sinadura izanen du, Espainiako Sustapen Ministeritzak egindako adjudikazioaren arabera. Maiatzaren 10ean eman ziren oinarrizko proiektua eta segurtasun eta osasun ikerketa egiteko lanak. Egun horretatik lau hilabeteko epea zuten lana akitzeko. Haserako aurrekontua kasik 33 milioi pezetakoa zen eta 27.052.410 pezeta eman zaio lana sei arkitektuk osatutako taldeari: Iruñeko Oscar Mongay Jimenez, Manuel Enriquez Jimenez eta Javier Barcos Berruezo, Doneztebeko Mª Teresa Mariezkurrena eta Bartzelonako Alberto de Pineda Alvarez eta Francisco Jaier Lambrich Bernada.

Haserako preziotik %18ko jautsiera zuela kontuan hartuz –bertze proposamenek %11 jausten zuten bitartean– horren arrazoia azaldu behar izan zioten arkitektuek epaimahaiari, Jose Miguel Galarregi Elgorriagako alkateak adierazi duenez.

Elgorriagako bainuetxearen lanek 879 milioi pezetako aurrekontu osoa dute. Sustapen Ministeritzak erdia ordainduko du, Nafarroako Gobernuak %30a eta Elgorriagako Udalak gainerakoa.

## SUNBILLA

#### Haritz Arriola eta Jon Maritxalar igerilekuko arduradun

Jadanik heldu da igerilekura joateko tenorea. Hilabete pare batez enkantera inor aurkeztu gabe egon ondotik, herriko bi gaztek, Haritz Arriola eta Jon Maritxalarrek hartu dute aurtengo udaran igerilekuko ardura. Ekainaren 15ean zabaldu da eta, urtero bezala, irailaren 15a arte egonen da zabalik.

#### Zazpi neska-mutikok egin zuten lehen jaunartzea

Maiatzaren 28an lehen jaunartzeak ospatu ziren Sunbillan. Jon Juankorena, Xabier Juankorena, Javi Salas, Maite Mendibil, Mirian Aranzo, Izaro Petrirena eta Silvia Elizalde izan ziren lehen aldiz jauna hartu zutenak.

#### 277a Asteburu kulturaleko zariaren zenbaki berria

Asteburu kulturalean zozketatutako zariaren zenbakia saritua azaldu ez dela eta zozketa berria egin da. Atera den zenbakia 277a da.

Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

✆ (+34) 948 631 188



SALDIAS

# Saldiasko Sanjuan festak ekainaren 23tik 26ra

## Esku nahiz erremonte pilota partiduak ikusteko modua izanen da



Ez zen nolanahiko desafioa ikusi 1979. urteko Sanjuanetan. Korrika nor baino nor aritu ziren Pedro Urrutia alkatea, Tomas Otxandorena apeza eta Timoteo Baleztena. Aurten ere plantatuko ote da horrelako zerbait?

**Ostirala, ekainak 23**
**San Juan bezpera**
**Gaueko 9etan** pestan hasiera altxaferoarekin. Ondoren Baztan Zopak Herriko Ostatuan eta San Joan sua kanpoan. **12,30etan** hasi eta goizalderarte dantzaldia MODESTOrekin.

**Larunbata, ekainak 24**
**San Joan Eguna**
**8etan** argi soinua txistulariekin. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** pilota partiduak. Haurrak: Unai Urrutia eta Xabier Madariaga, Garikoitz Juanenea eta Endika Urrutiaren aurka. Kadeteak: Gaizka Elizalde eta Toni Huarte, Patxi Jaurena eta Iñaki Eskuderoren aurka. **6etan** erremontea: Mindegia eta San Miguel, Iban eta Mutuberriaren aurka. Etxeberria eta Mindegia, Perez eta Olazaren aurka. **Gaueko 10ak arte eta 12etatik goizaldeko 5ak arte** dantzaldia OSTADAR taldearekin.

**Igandea, ekainak 25**
**8etan** argi soinuak txistulari eta akordeoilariarekin. **11,30etan** Meza Nagusia. **12,30etan** aizkora apostua: Migel Mindegia eta Antonio Jaunarena, Donato Larretxea eta Felix Etxeberriaren aurka. **5,30etan** pilota partiduak. Haurrak: Aritz Juanenea eta Unai Madariaga, Urtzi Gonzalez eta Eñaut Iraolaren aurka. Gaztetxoak: Oskar Urrutia eta Alain Ezkurra, Koldo Legarra eta Mikel Iraolaren aurka. Helduak: Josu Baleztena eta Mikel Baleztena, Jon Goizueta eta Eneko Mitxeoren aurka. **8,30etatik 10,30etara eta 12,30etatik 5etara** dantzaldia MODESTOrekin.

**Astelehena, ekainak 26**
**Haurren Eguna**
**8etan** argi soinuak txistulariekin. **11etatik 1etara eta 4etatik 6etara** karts eta puzkorrak (gazteluak, ohe elastikoak...) haurrentzat. **12etan** mus txapelketa. **2etan** Herri Bazkaria Herriko Ostatuan. **5,30etan** plater haustea. **8,30etan hasi eta gauerdira arte** dantzaldia MODESTOrekin.

BERTIZ

### Bidasoako Filme Laburren III. Zinemaldia Iruritako Ana Villoriaren kartelak iragarriko du

Bidasoako Filme Laburren III. Zinemaldia iragarriko duen kartela Iruritako Ana Villoriak egindako «Hasiera» izenekoa da. Irabazleak 50.000 pezetako saria irabazi du eta bere lanak irailaren 4tik 16ra Bera, Doneztebe, Hendaia eta Hondarribian eginen den Bidasoako Filme Laburren III. Zinemaldia iragarriko du.

Lehiaketaren epaimahia Lesakako Juan Carlos Pikabea margolariak, Elizondoko Tomas Sobrino margolari eta arte irakasleak, Clara Santamaria arte ikasleak eta Iruritako Txetxu Salazar arkitektoak osatu dute. Epaimahaia ekainaren 7an bildu zen Bertizko Partzuergoaren bulegoan. Ana Villoriaren kartela bere seriotasunarengatik eta zinearen formengatik aukeratu zuen.

Bera, Irun, Hondarribia, Lesaka, Iruritа eta Elizondoko zortzi kartel aurkeztu ziren.

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
✆ 948 45 04 91

Mirari
Pre-mama moda
Barrendik eta kanpotik janzten zaitugu
Serapio Mugika, 14 • IRUN • ✆ 943 615886

ANTOJOS
boutique pre-mama
Arbelaiz Jauregia
Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

## GOIZUETA

# Mandoegin pagoak landatu ditu Basauntz Ehiztarien Elkarteak

Burugorriko pistako ataka, berriz, giltzarekin itxita dago

ESTEBAN AROTZENA

Mandoegi mendiko lur puska bat 5.100 pagoz landatu du joan den neguan herriko ehiztariak biltzen dituen Basauntz elkarteak. Lan honen aurrekontua 1.740.000 pezetakoa zen. Nafarroako Gobernuak %60a ordaindu du, eta gainerakoa, Basauntzek hartu du bere gain.

Gauza jakina da, dirusarreren portzentai bat kotoan bertan erabiltzera behartuta dagoela elkartea. Hori dela eta, aipatutako landaketa honi ekin dioten bezala aurten, hurrengo urteetan pistak konponduko dituzte. Etzelatik Abaden Gurutzekoa martxan da dagoeneko. Ilarbietakoa eta Errekalkokoa berriz, komisikoen helburuen zerrendan omen daude.

### Burugorriko pista giltzaz itxia

Konpondu berria den Burugorriko pistako ataka kandaduz itxita dago ekainaren 12az geroztik, Udalak horrelaxe erabaki duelako. Dena den, bide hori erabili nahi dutenek ez dute inolako arazorik izanen, bertako giltza Herriko Etxean egonen baita guztion esku.

### Dirulaguntzak banatu ditu Udalak

Maiatzaren 26ko osoko bilkuran hainbat dirulaguntza eskaera onartu zituen Udalak. Aipatu, besteak beste, Nafarroako Bertsozale Elkarteari (finala Goizuetan egiteagatik), TTIPI-TTAPAri, Kilometroak-eri eta Araba Euskaraz-i emandakoak.



**Basauntz elkartea ehizaren etorkizunaz ere arduratzen da. Horregatik ari da mendiak landatzen.** Artxibokoa

## ARESO

# Julio Nieto izendatu dute Usoa elkarteko lehendakari

Larrea elkarteak bere 14. urteurrena ospatu zuen

JUANA MARI SAIZAR

Usoa ehiztari elkarteak zuzendaritza batzordea aldatu du. Lehendakaria Julio Nieto izendatu dute. Laguntzeko Lontxo Ontsalo, Iñigo Olano, Jose Fermin Gomez eta Jose Mª Lansalot izango ditu.

### Aresoarrak Tuterara

Apirilaren 28an, Orreaga kultur elkarteak antolatuta, elkarteentzako Nafarroako mus txapelketa (euskaraz) egin zen Tuteran. Nafarroa osoko 45 bikotek parte hartu zuten. Aresoarrak ere bertan egon ziren: Herritarren Elkartearen izenean Geno Telletxea eta Milagros Caballero, eta Pake-Toki Elkartearen izenean Kontxi Marzol eta Mª Jesus Barandarain.

### Larrea elkarteak 14 urte bete ditu

Larrea elkarteak bere hamalaugarren urteurrena ekainaren 4ean ospatu zuen. 26 lagun bildu ziren bazkarian.

### Ingurugiroaren Eguna eskolan

Ingurugiroaren Eguna zela eta, eskolan ere zaborrak bildu, klase ezberdinen arabera banandu , zaborraren erabilera egokiari buruzko kartelak egin eta herrian zabaldu dituzte.

### Mikel Goiaingerua

Beste urte batez, Mikel Goiaingeruaren bisita izan genuen ekainaren 4ean. Goizean ongietorria eskaini zitzaion eta meza ospatu ondoren, gaixo batzuei bisita egin zien eta herriko plazan soroak eta belazeak bedeinkatu zituen.



**Hamalau urte bete ditu Larrea elkarteak. Argazkian, duela hiru urteko mus txapelketa.**

### Pintura ikastaroa

Jaiotzeko irudiak konpontzeko asmoarekin pintura ikastaroa antolatu da, Aresoko ikasle eta gurasoentzat. Ekainaren 6an eta 7an egin da eta Guraso Elkarteak antolatu du.

## LEITZA

# Bengoetxeatarrak eta Zestau omenduko dituzte XV. Pilotarien Batzarrean

### Egunotan ekitaldi ugari egiten ari dira Leitzan eta igandean eginen da batzarra

JOSEBA AZPIROZ

Ekainaren 12tik 18ra, XV. Pilotarien Batzarra Leitzan egiten ari da. Astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, arratsaldeko 7,30etan, pilota partiduak jokatuko dira herriko plazan (alebinak, benjaminak, infantilak eta gazteak).

Asteartean, partiduak jokatu bitartean, Otero pilotagileak bere lanaren erakusketa egin zuen.

Asteazkenean, Abel Barriola, Iñaki Iparragirre eta pilotari ohi batek takoak jartzen erakutsi zuten.

Ostegunean berriz, arratsaldeko 7,30etan, zineman, pilotari buruzko mahai-ingurua izanen da, Juan Mari Bengoetxea, Antton Maiz, Julian Retegi, Aitor Elkoro eta Asier Olaizolarekin. Moderatzaile, Josetxo Lizartza kazetaria arituko da.

Ostiralean, gaueko 10,30etan profesionalen arteko partidu onenetariko baten bideo emanaldia izanen da, zineman.

Larunbatean, arratsaldeko 5,30etan, profesionalen arteko partiduak izanen dira Amazabal pilotalekuan. Nafarroako lau terdiko txapelketa ofizialeko partidua izanen da: Arretxe Armendarizen aurka. Ondoren beste bat ere jokatuko da.



Bengoetxea III, Bengoetxea IV eta Zestau I, Pilotarien Batzarrean omenaldia jasoko duten pilotari handiak.

Azkenik, igandean honako egitaraua izane da: 9,30etan, dianak. 10etan, argazki erakusketa karrapean. 10,30etan, Pilotarien Batzarrari harrera Udaletxean. 11tan, Meza nagusia; 12etan, Aurrerako dantzariak plazan; 12,30etan, Pilotarien Batzarreko batzar nagusia Udaletxean; 12,45etan, pilota partiduak plazan: Migel Bengoetxea eta Jose Antonio Olaetxea, Oinatz Bengoetxea eta Ibai Bengoetxea. Arratsaldeko 2,30etan, bazkaria eskolako jangelan. Gogoratu behar da Pilotarien Batzarrak omenaldia eskainiko diela bederatzi pilotari ohiei. Tartean izanen dira Juan Mari Bengoetxea (Bengoetxea III) eta Migel Bengoetxea (Bengoetxea IV) esku pilotariak eta Migel Zestau (Zestau I) erremontelaria.

### Zerbitzu berria liburutegian

Leitzako liburutegiak duela gutxi eskaintzen duen zerbitzu baten berri eman digu: ordenagailu baten erabilera, internet, posta elektronikoa, inprimagailua eta eskanerrarekin. Internet erabiltzeagatik 100 pzta. (gutxienez) kobratuko dira lehenengo 20 minutuengatik, 200 pzta. 40 minutu arte eta 300 pzta. ordu bat arte (gehienez). Zuri beltzean inprimitutako orrialde bakoitzarengatik, 10 pzta. kobratuko dira, koloretan inprimitutako marrazki txiki eta testua 25 pzta. eta marrazki handi eta argazkiak 100 pzta. Kanpoko diskete eta cd-romak sartzea galerazita dagoenez, bertan salduko dira, 75 eta 250 pezetaren truke.

Internet: gutxienez, 20 minutu, 100 pzta. Aldez aurretik ordua hartu nahi izan ezkero, 948 510 379 telefonora deitu dezakezue. Bestalde, gogoratu hilaren 12tik irailaren 11ra udako ordutegia jarri dutela liburutegian (goizeko 8,30etatik, 2,30ak arte).

### San Pedroak Gorriztaranen

Urtero bezala, Gorriztaran auzoko festa San Pedro egunaren aurreko igandean, hau da, hilaren 25ean, ospatuko da. Honako hau da egitaraua: 9,30etan Meza. 11etan Herri Kirolak (lasterka, harrijasotzen, sokatiran). 2etan auzotarren bazkaria. Arratsaldeko 5etan mus txapelketa. Arratsaldeko 7etatik gauerdira dantzarako musika (atsedenaldian txokolatea). Ilunabarreko 8,30etan XIV. Txintxurrin txapelketa.

### Mendibil taldearen ateraldia igandean

Mendibil mendi taldeak egun osoko ibilaldia antolatu du hilaren 18rako. Zuriza eta Val D'Echo arteko zeharkaldia eginen da. Irteera goizeko 7etan izanen da eta izena betiko tokietan eman behar da. Denborarekin izena ematea komeni da, behar adina jende bildu z gero, autobusa alokatzeko.

### Nafarroako Jolas Kiroletan txapeldun

Nafarroako Jolas Kirolak txapelketan parte hartu du Aurrerako haurren futbol taldeak. Mutikoak txapeldun suertatu ziren, maiatzaren 27an Errotxapean jokatutako finalean San Juan taldeari irabazi ondotik.

### Unai Arzallus zenari omenaldia eginen zaio ekainaren 25ean

Heldu den igandean, ekainak 25, Unai Arzallus, Aurrera futbol taldeko jokalariaren aldeko meza emanen da. Taldeko lagunek atera dute meza eta futbol partiduren bat jokatzeko asmoa ere badute.

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32 • Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun
24.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
© 948 63 11 88

## BAZTAN

# 1.706 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Balleko Udalak

Bigarren batzar bat behar izan zen onartzeko

TTIPI-TTAPA

Lehendabiziko ba- ... EH eta UPNk ... tzelera bota zituzten ... udal aurrekontuak eta ... ekainaren 6an eginda- ... bigarren batzarrera ... deitu behar izan zen ... aurtengo udal aurre- ... kontuak onartzeko. ... Aurten 1.706 milioi pe- ... zetako udal aurrekon- ... tua izanen da (San Jose ... Zahar-Etxea eta udal ... ...kontuak bar- ... eta batzarrera ager- ... ziren EAko bortz zi- ... ...aldeko botua, ... EHko bien abstentzioa ... UPNko hiruen kon- ... trako botua jaso zuen.

Maiatzaren 26an aur- ... kentutako aurrekontu- ... ekainaren 6an aur- ... kezteko aldaketa ba- ... tzuk egin ziren. EAko ... ordezkarien erranetan: ... aparlekura ... ...tako dirua mu- ... egin dugu». EHk ... egindako eskari batzuk ... etorkizunean ... aldaketak izanen direla ... segurtatu zuen. ... «Diru sailak orain al- ... zaila izanen li- ... eta horrela egi- ... erabaki dugu».



**San Francisco Javier ikasletxeko ikasleek Zahar Etxeko ospakizunetan parte hartu zuten**

San Francisco Javier ikastetxeko hirugarren Zikloko ikasleek maiatzaren 9an Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean, Kultur Astearen barnean egindako ekitaldietan parte hartu zuten. Bertan, antzerki, txotxongilo, kantak eta dantzak eginez, han daudenekin harremanak sakondu zituzten.

Leopoldo Jaen, UPNko ordezkariaren erranetan, *«35 milioi orain dagoena moldatzen gastatzea baino Oronozen pilotaplaza berria egitea nahiago dugu»*. Honetarako kreditua eskatu behar izatea ere kritikatu zuen.

EHk, bere aldetik, aldaketa batzuk proposatu zituen euskara gaietan. *«Hitza eman duten bezala, horiek egiten badira ongi dago»*. Dena den, aurrekontuak egiterakoan bertze udal taldeen, herrietako alkateen eta Junta Generalaren iritzia kontuak hartu behar dela azpimarratu zuen eta horregatik abstenitu zen.

841 milioi pezetako inbertsioak eginen dira eta horretarako, 598 milioiko dirulaguntza espero da Nafarroako Gobernutik. Arizkungo Ordoki industrialdean 108 milioi inbertituko dira eta ehuna milioi hiru-hondakinak tratatzeko zentroan eta bideak moldatzen.

## flash

**Margo erakusketa**

Iruñeko Jose Ansoain margolariarem oleoak ikusgai izanen dira Elizondoko Mauricio Berekoetxea etorbideko 2. zenbakian (eliza ondoan) ekainaren 30a arte. Astegunetan, arratsaldeko 5etatik 9etara eta besta egunetan, eguerdiko 12etatik 2etara.

**73 milioi oihanberritze lanetarako**

Nafarroako Gobernuak 73,03 milioi pezetako gastua onartu du Baztanen hiru oihanberritze proiektu gauzatzeko. Aurten 24 milioi terdiko inbertsioa eginen da eta heldu den urten gainerakoa. Lanak Autrin, Zapitor eta Zarbastan eginen dira.

**TTIPI-TTAPAren gastuak ordaintzeko**

eskea eginez, asteotan etxez etxe deitzen ari dira TTIPI-TTAPAtik. Datuak berritzeaz gain, Baztanen TTIPI-TTAPA banatzeak sortzen duen gastua ordaintzen laguntzea eskatzen da (2.000 pezeta urteko). Gaur egun, 1.600 aldizkari banatzen dira hamabortzero Baztanen eta Udalak ematen duen 550.000 pezetako laguntzarekin ezin da sortzen diren gastuak kitatu.

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDAKO ARROPA
URTE HONETAKO MODA BERRIA
BAINU JANTZIAK, SOINAK, KONJUNTOAK, GONAK... ETA KONPLEMENTOAK

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

## BAZTAN

# Erratzuko bestak ekainaren 28tik uztailaren 2ra

### Ortzilerian eginen da zikiro jatea



Hori dun hori umorea! Aurtengoan ere gisa beretsuan ikusiko ditugu neska gazte hauek Erratzuko Sanpedroetan.

**Asteazkena, ekainak 28**
**Bezpera**
**8etan** ezkil jotzea, suziriak, txalaparta eta kirikoketarien emanaldia bestei hasiera emateko. **9,30etan** Baztan zopak Albantzenea ostatuan.

**Ortzegune, ekainak 29**
**San Pedro Eguna**
**10etan** argi soinuak txistulari eta herriko akordiolariarekin. **11etan**, Meza Nagusia. **11,45etan** herriko plazan Gaztelu taldearen kantu zaharrak. **12,45etan** Herriko Ostatuan luntxa. **6etan** herritarren arteko jinkanak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia IÑAZKI taldearekin. **10,30etan** Mutildantzak. **11etan** rock kontzertua Zubipunta ostatuan.

**Ortzileria, ekainak 30**
**Zikiro jate eguna**
**10etan** argi soinuak txistulari eta herriko akordiolariekin. **11tan** pilota desafioa Gorostapolon. **2etan** zikiro jatea frontoian, BIZKARGAIN fanfarreak alaiturik. Ondoren dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **10,30etan** mutildantzak.

**Larunbata, uztailak 1**
**Haurren Eguna**
**10etan** argi soinuak txistulari eta herriko akordeolariekin. **11etan** herri jokoak plazan. **12,30etan** japoniar bonben jaurtiketa. **1etan** txikiendako herri bazkaria, frontoian. **5etan** Xanti Antero magoaren saioa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia DESKANTXO taldearekin. **10,30etan** mutildantzak. Ondoren gezurrezko suak.

**Igandea, uztailak 2**
**10etan** argi soinuak txistulari eta herriko akordeolariekin. **11etan** BIZKARGAIN fanfarrearekin animazioa. **12etan** aurreskua, mutildantzak eta herriko dantzarien emanaldia. **5etan** profesionalen arteko pilota partidua: Esain eta Almandoz, Atxa eta Otxandorenaren kontra. **5,30etan** herritarren arteko pilota desafioa. **7etan** bertsolariak: Peñagarikano, Estitxu Arotzena, Iñigo Olaetxea. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia ABAXI taldearekin. **10,30etan** mutildantzak. **11etan** Panpi Portugalen emanaldia Iparla ostatuan. Dantzaldia akitzean Gaixoa Ni eta besten akabaila.

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

ETXEBERRIA OSTATUA
Ongi pasa herriko bestak!
✆ 948 453013
Karrika Nagusia 12 • ARIZKUN

IPARLA OSTATUA
• Egunero bokata eta pintxo beroak
• Igandetan salda
• Giro ona
Aduana karrika
☎ 948 453153
ERRATZU

ARIZKUN zerrategia
➳ Zerrategia
➳ Zurezko teilatuak
✆ 948 453 304 • Dantxarineako errep. • ARIZKUN




DOLATXEA OSTATUA
Iñauteriak ongi pasa!
✆ 948 453002 • ARIZKUN

Ostatua
Herriko Plaza • ✆ 948 453118 • ERRATZU

BEREKO BENTA
ostatu • janaridenda • oroigarriak
Bokadilloak ematen dira
Izpegi • ✆ 948 453027 • ERRATZU

ZUBIPUNTA OSTATUA
Besta onak opa dizkizuegu
✆ 948 453248
ERRATZU

## BAZTAN

# Arizkungo Sanjuanak ekainaren 23tik 26ra

### Plater tiraketa txapelketa eginen da egun handian

**Ortzilerie, ekainak 23**
**San Juan bezpera**
**12etan** besten hasmenta. **12,30etan** txopo eta bandera goratzea herriko txistulariekin. **2etan** bazkaria txopo goratzaileendako. **Iluntzean** San Juan suak eta ezkil-jotzea. **10,30etan** mamurro erretzea. **11etan** baztan-zopak. **12etatik altzin** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. Ondotik mutildantzak, pausoak erranda. **5etan** zinger-jatea.
**Larunbata, ekainak 24**
**San Juan Egune**
**6etan** ezkil-jotzea. **10etan** argi-soinuek. **11etan** Meza Nagusie. **12etan** mutildantzak eta aperitifa. **4etan** herriko plater tiraketa. **7etan** kantaldia. **Arratsean eta gauean** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **10etan** mutildantzak eta gaita.
**Igandea, ekainak 25**
**Haurren Egune**
**10etan** argi soinuak. **11etan** haurrendako jokuak. **12etan** aperitifa. **2etan** haurrendako bazkaria. Ondotik gaztelu haizatuak. **5etan** zaldi hezitzea. **6etan** txokolate jatea. **Arratsean eta gauean** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin. **5etan** gasna-jatea.
**Astelehena, ekainak 26**
**Zikiro jate egune**
**10etan** argi soinuak. **11,30etan** mus txapelketa. **2etan** zikiro-jatea. Ondotik, mus txapelketaren finala. **6etan** antzarajokoa. **Arratsean eta gauean** dantzaldia IÑAZKI taldearekin. **10etan** mutildantzak eta gaita. **5etan** txopo botatzea.



Mamurroa erreko da San Juan bezperan.

# Almandozko bestak ekainaren 21etik 25era

### Goizero gosaria izanen da Aundimendin

**Asteazkena, ekainak 21**
**San Juan bezpera**
**12etan** suziria. **8etan** kalejira Eskerne soinulariarekin. **10etan** herri afaria Leku-Eder elkartean.
**Ortzegune, ekainak 22**
**Besta Berri egune**
**7etan** gau-txoriendako gosaria Aundimendin. **8etan** goiz-argi soinuak herriko musikariekin. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** hameketakoa pilotalekuan. **10etan** herri afaria Leku-Eder elkartean. **11etan** dantzaldia pilotalekuan.
**Ortzileria, ekainak 23**
**Haurren Egune**
**7etan** gau-txoriendako gosaria Aundimendin. **11etan** haurrendako jokuak. **4etan** plater tiraketa herrikoendako. **5etan** haurrendako txokolatada sorpresekin. **8etatik 10etara eta 12etatik 4etara** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin
**Larunbata, ekainak 24**
**7etan** gau-txoriendako gosaria Aundimendin. **11etan** herriko mus txapelketa pilotalekuan. **2etan** zikiro-jatea pilotalekuan. **1etatik 5etara** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.
**Igandea, ekainak 25**
**7etan** gau-txoriendako gosaria Aundimendin. **12etan** Meza Nagusia eta lehen jaunartzeak. **5etan** herri kirolak Zurgai taldearekin (Zerratokia, gurdi-proba, aitzurrarekin egur moztea, aizkol apostua eta arpana). **8etatik 12etara** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin eta «Gaixoa Ni» oraindik bizi direnendako.



Herriko bestak mozorratzeko ere aprobetxatzen dute batzuk.

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA - GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilluttak • Hilauttak • Esketak • Dokumentazioak
Bestlarak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tlnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tlnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tlnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tlnoa: 948580668 • ELIZONDO

ORDOKI likoreak
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak



## SENPERE



# Herriko kermeza eta bestak gain-gainean ditugu

Erearoaren 21ean musikaren besta eta 25ean eskola publikoarena eginen dira

FRANCK DOLOSOR

Herriko kermeza heldu den igandean ospatuko da Gantxiki pilotalekuan. Egun osoan animazio frango izanen da: 10,30etan meza, eguerditan zintzur bustitzea eta bazkaria. Arratsaldez, zozketa, mus txapelketa eta San Josep eskolako haurren ikusgarria eginen dira, gauean parte hartzaile guziek elkarrekin afaltzen ahalko dutelarik.



**Familia handiena duten emaztekiak saritu ditu bertze urte batez Herriko Etxeak**

Herriko Etxean ohitura denez, familiarik handiena duten emaztekiak saritu dituzte aurten ere. Garai batean senide aunitz behar ziren sari hau biltzeko, baina gaur egun hiru edo lau seme-alaba dituzte ama hauek. Maiatzaren 27an banatu dituzte sariak. Argazkia: Studio de la Nivelle

### Euskararentzat ahal gehiago eskatzeko manifestaldia

Ekainaren 11n euskaltzaleek ahal gehiago euskararentzat galdegin zituzten Baionako karriketan barna iragan zen manifestaldian. Euskal Konfederazioak gure mintzaira ofiziala izatea eta hautetsiek euskara lagun dezaten eskatu zuen aldi batez gehiago.

### Animazio ainitz herrian uda hasteko

Udari buruz, animazio ainitz bada herrian. Erearoaren 21ean musikaren besta eginen da eta 25ean eskola publikoek beren urteko besta ospatuko dute.

### Herriko bestak ere gain-gainean ditugu

Erearoaren 30ean, ortziral gauean, zikiroarekin hasiko zaizkigu beti bezala, gero afari bereziak prestatuko dituzte herriko ostatuetan. Ixil eta edan, Sustraia eta Kukumiku taldeek alaituko dituzte arratsetan izanen diren dantzaldiak. Pilota partida andanaz gain, idi uztarri txapelketa eta ardi mozte zoin gehiagoka prestatu dituzte besta komiteko gazteek. Dena den, egitarauaren xehetasunen berri etxez etxe banatuko dute.

### Departamendua eskatu zuten euskaldunek Santa Gabelan

Erearoaren 3an, milaka euskaldun bildu ziren Okzitaniako Santa Gabelan, Lionel Jospin, frantses lehen ministroaren herrian, euskal departamendua sortzea hitz eman zuela oroitarazteko. 40 bat senpertarrek eta bertze hainbat saratarrek, kontseilari batzuk eta Jean Aniotzbehere Sarako auzapeza barne, parte hartu zuten besta-manifestaldi Harat hurbildu ziren hautetsiek eskutitz bat eman zioten Santa Gabelako auzapezari, Jospin haunari eman dezaion. Frantses president Jacques Chiraci galdegin zaio zerbait egin dezan, espainol presidenta Jose Maria Aznar gogorki kritikatu zen departamenduaren kontra delakoan eta hitz eman da halako ekintza gehiago egitea. Departamenduaren aldeko kanpaina izanen da udan Baionako besten kari.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
MAIALEN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tel. 05 59 54 25 19

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx
Kutxa
Kidetza berri bat!
7. Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209

SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen
Benta Biok-en, Benta Mirentxuren ondoan
✆ 0034948630424

## SARA

# Presoen aldeko martxan 70 lagun bildu ziren Larrunen

### Sara, Bera eta Azkaineko plazetatik abiatuko dira




Zutik: Bergara, Grillard, Bessonart, Lastra, Urdanpilleta, Ordoki, Zamora, Dupuy, Lastra eta Patxi Zamora entrenatzailea. Kokorika: Barrenetxe, Elizalde, Guth, Zamora, Leizagoien, Ordoki, Lahorgue eta Iramuno.

ANA MARI ETA FRED

Erearoaren 4an Larrunera upatu ziren 70 lagun euskal presoak Euskal Herrirat ekarriak izan daitezen galdetzeko, bai horien atxikimendua erakusteko. Abiadak Sara, Bera eta Azkainetik egin ziren; eguraldiari gogor eginez denek Larrun kaskoan elgarretaratu ziren, Sara, Bera, Azkaine, Zugarramurdi, Senpere, Hendaia eta bertze herri batzuetatik etorriak.

Bertzalde, bi astetarik behin egiten den elgarretaratzea ortziralean, erearoaren 16an, arratsaldeko 7etan eginen da. Orduan Larrunera upatzea beldur zinetenak etorri plazara nornahi ailegatzen baita!

**Zikiroa Plekan**

Maiatzaren 28an zikiro bat antolatua zen Pleka trinketean. Helburua ANECAH (elbarrituen laguntzeko zakur hezitzaileen elkartea) elkartearen alde sosa biltzea zen. Alabainan, joan den urte ondarrean elkarte horrek zakur bat eskaini zion Patxi, etxeko semeari, eta keinu estimagarri horren eskertzeko Patxiren burasoek antolatu dute zikiro hori. Bainan tripako kontuetaz aparte, Plekan pilota ere ezin falta, pilota partida gaitza jokatu da, Lafitte eta Martiarena, Ibarola eta Karrkart-en kontra lehiatu baitira.

**Elgarretaratzea**

Maiatzaren 30etik ekainaren 2a arte eskualdeen arteko X. elgarretaratzeak iragan dira Saran. Ekitaldi hori bretaindarren iniziatibari esker sortu zen eta geroztik eskualde desberdinetan egin ondoren, aurten, bigarren aldiz, Euskal Herriaren aldi izan da. Biarnotik, Okzitaniatik, Alsaziatik, Martinikatik, Kataluniatik, Flandriatik, Reunion Uhartetarik, Bretainiatik eta Euskal Herritik etorri 50 bat lagun bildu dira hizkuntza politikaren gaiaren inguruan gogoetatzeko. Bakotxaren esperientziak trukatu dituzte, hizkuntza estrategia landu eta bertze behin ere estatuari hizkuntza guttituak kondutan har ditzan galdatu diote. Denak aski giro onean iragan dira Daniel Laplacette jaunak gogo onez utzi Omordia gelan.

**Urtxintxak txapeldun**

Herriko nesken eskubaloi taldeak departamenduko txapelketa irabazi du. Donibane Lohizuneko taldea gainditu zuten 25 eta 14 Gan herrian. Bertzalde, maiatzaren 20an auzo arteko hand-ball txapelketa. Zortzi talde aritu ziren lehian eta arratseko zikiro jatean 140 presuna elkartu ziren.

## URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Umore ederrean gan dira Urdazubiko bestak

### Emakumeen bazkaria eta lasterketa egin dira aurten



Zubietako joaldunak San Juan gaueko gaupasan izanen dira.

Argazkia: Margari

MARGARI ETA KORO

